



**2022KO UZTAILAREN 4KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko uztailaren lauan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxe-mai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2022ko ekainaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 31 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA ZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA SEI euro ETA HIRUROGEITA BEDERATZI zentimo (27.726,69 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- KALEAN UTZITAKO ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA GIPUZKOAKO ANIMALIAK
ETA LANDAREAK BABESTEKO ELKARTEAREKIN HITZARMENA.-**

Alkateak esan du idazkariaren eskariz eta izenpetzea planteatzen den hitzarmena hobeto aztertu ahal izateko, gaia mahai gainean uztea proposatzen dela. Aztertu ondoren hurrengo bilkurara ekarriko da gaia.

Denak ontzat eman dute gaia mahai gainean uztea.

IV.- GOIEKI S.A.RI BERRABIARAZI PROIEKTURAKO 2022KO EKARPENA.-

Covid-19 pandemiak sortutako egoeraren aurrean ekonomia sustatzeko plangintzaren barnean, iaz GOIEKI eta udalek elkarlanean BERRABIARAZI programa jarri zuten martxan.

Lazkaoko Udalak, 2021eko uztailaren 12an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, proiektuarentzat 19.209€ko ekarpena onartu zuen.

Orain 2022 urterako ekarpena egitea planteatzen da. Bigarren ekarpen hau 12.806 €koa da eta honekin amaiera emango zaio proiektuari egin beharreko ezarpenei.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, GOIEKIri berrabiarazi proiekturako 2022 urteko HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA SEI (12.806 €) euroko bigarren ekarpena, azkena, onartzea erabaki du.



V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziak dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2022ko martxoan egindako aste kulturalarengatik 800 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.01.334.00 partidatik egingo da.

Jon Barandiaran Mujika.-

Zubierreka auzoan, ekainaren 24an, San Juan Txikiko ermitan antolatzen duen erromeriaren gastuei aurre egiteko 577 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

Kultura batzordetik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak honako dirulaguntza hau onartu du:

Kantaka abesbatza.-

2022ko San Juan Su festan parte harteagatik 350 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara batzordetik egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak honako dirulaguntzak hauek onartu ditu:

Gida baimena euskaraz ateratzeagatik.-

Gida baimena euskaraz ateratzeagatik, bere espedientean dagoen lagun bakarrari 100 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

Euskarako eskoletara joateagatik.-

2021-2022 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren azken zatiaren ordainketa egitea. Hiru ikasle dira, bere espedientean datuen arabera, eta guztira 1.088 € emango dira.

Ordainketak aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo dira.

LAZKAOKO

UDALAK

VII.- JARDUERA EKONOMIKOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik merkatariei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:


- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik be-



LAZKAOKO UDALA

raien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariari
laugarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Merkataria	Zenbatekoa
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	395 €
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	55 €
ALBERTO SUKIA (SUKIA HARATEGIA)	820 €
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	190 €
JON SANTOS MARTIN	65 €
GERRIKO SL	205 €
GERRIKO SL	15 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	680 €
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	15 €
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	10 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	155 €
ELENA IEREMIA (ELENA ALIMENTACION)	125 €
M ^a CARMEN AGUADO (AGUADO ESTANKOA)	455 €
OLATZ RISCO URSUA	80 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	690 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	80 €
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	3.590 €
ERROTAUNDI SL	65 €
PELLO BIDEKAIN (HARATEGIA)	170 €
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	425 €
MIGUEL MARI ARAKAMA (HARATEGIA)	905 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	350 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	415 €
AMAIA GARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	5 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	65 €
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	145 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	330 €
ANGEL CIEREZ (ZERIK ILEAPAINDEGIA)	205 €
URTEAGA PENTXUAK SL	395 €
ROBERTO ELIZBURU (HARATEGIA)	25 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	640 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	755 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	135 €
RICARDO IZQUIERDO SANTAMARIA	130 €
BELEN ARANÉS FARMAZIA	425 €
EVA ARRUIZ SATES (KIOSKOA)	65 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	495 €
ARTANO ETA LORENA SL	105 €
ARTANO ETA LORENA SL	10 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR(XANU)	625 €
J. MANUEL MATIAS (FRUTADENDA)	2.340 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.075 €
ALAITZ ZUBIZARRETA (MAGALA)	315 €
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	80 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	60 €
AINITZE KORTA MENDIZABAL (MISZELANIA)	55 €



AMAIA SORAZU (EKILORE)	80 €
GUZTIRA	18.815 €

Ordainketa hauengatik udalari dagokion gastua aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

Lazkaon merkatarri elkarteari.-

2022ko ekainaren 22an Tokiko Gobernu Batzordean onartutako hitzarmenean jasotakoaren arabera, hitzarmenean jasotako lehen bi ekintzetarako, 646,31 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.04.430.00 partidatik egingo da.

VIII.- LANDA LURRA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:



- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean mar-txan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat base-rritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei le-henengo ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Aitor Iztueta Barandiaran	480 €
GUZTIRA	480 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

**LAZKAOKO
UDAL**